

Slawomir Mrozek “Elefantea”

Marta Kopinska

Polonierako lektorea / Lectora de polaco

Laburpena

Slawomir Mrozek (Borzęcin, Polonia, 1930) antzerkigile eta prosa-idazle poloniar bikaina da. Bere kontakizun laburren ezaugarri nagusia horietan nabarmena den umore surrealista eta satirikoa da. Askotan, gainera, Poloniako “egiazko sozialismoari” egiten dizkio erreferentziak. Mrozeken lana, besteak beste, ingelesera, frantsesera eta gaztelaniara itzuli da. Mundu bat-begirada anitz aldizkariaren ale honetan, poloniera lektoreak lehenengo aldiz 1957. urtean argitaratu zen *Słoń* bildumako kontakizun labur baten euskarazko itzulpena eskaintzen du.

Resumen

Slawomir Mrozek (Borzęcin, Polonia, 1930) es un excelente dramaturgo y escritor de prosa polaco. Sus relatos breves se caracterizan por su humor surrealista y satírico y muchas veces contienen referencias a la realidad del “socialismo real” en Polonia. La obra de Mrozek se ha traducido, entre otros, a inglés, francés y español. En el presente número de la revista *Un mundo-muchas miradas* el lectorado de polaco les ofrece la traducción al euskera del relato breve de la colección “Słoń”, publicada por primera vez en 1957.

Slawomir Mrozek (Borzęcin, Polonia, 1930) es un excelente dramaturgo y escritor de prosa polaco, uno de los autores polacos más conocidos en el mundo. En su Polonia natal antes de darse a conocer como escritor, se hizo muy famoso por sus dibujos satíricos. Entre las obras de Mrozek-escritor, las más reconocidas son los dramas y los relatos breves, que se caracterizan por su humor particular, surrealista y satírico y muchas veces contienen referencias a la realidad del “socialismo real” en Polonia. La obra de Mrozek se ha traducido a varios idiomas, entre otros, a inglés, alemán, francés y español.

El relato breve de Sławomir Mrożek “Słoń” (*El elefante/Elefantea*) de la colección “Słoń” (*El elefante*) se publicó en Polonia por primera vez en 1957 (Diogenes Verlag), por lo cual su traducción a euskera supuso numerosas dudas de materia lingüística y sociocultural. El relato contiene muchas referencias y alusiones a la realidad de la época socialista en Polonia, la realidad comunista y la retórica típica de la propaganda, los funcionarios y los directivos de esos tiempos; muchos estereotipos y absurdos de la vida en la República Popular de Polonia (PRL).

El protagonista del relato es un elefante de goma que decide fabricar e hinchar el director de un parque zoológico provincial. El director es una persona muy ambiciosa y devota al socialismo, por lo cual rechaza a la adjudicación de un elefante verdadero por parte de la administración estatal y manda a sus empleados fabricar “un elefante casero”. Los conserjes, a los que tocó el trabajo de soplar por dos extremos una gran bolsa de goma gris con forma de un elefante, al final deciden ayudarse con una espita de gas. Las consecuencias de hinchar el elefante con gas resultan desastrosas, cuando los visitantes del parque presencian la repentina fuga del animal, llevado por el viento. El relato es una inteligente y divertida sátira a la retórica y la realidad socialista en Polonia.

A continuación, se presenta el texto original del relato breve de Sławomir Mrożek “Słoń” y su versión en euskera (“Elefantea”).

ŚLAWOMIR MROŻEK SŁOŃ

Ze zbioru opowiadań S. Mrożka *Słoń*. 2010. Warszawa: Noir sur Blanc. Wydanie piąte.

© Oficyna Literacka Noir sur Blanc

© Diogenes Verlag (Switzerland)

Kierownik ogrodu zoologicznego okazał się karierowiczem. Zwierzęta traktował tylko jako szczebel do wybicia się. Nie dbał także o należytą rolę swojej placówki w wychowaniu młodzieży. Żyrafa w jego ogrodzie miała krótką szyję, borsuk nie posiadał nawet swojej nory, świstaki, zobojętniale na wszystko, świstały nadmiernie rzadko i jakby niechętnie. Niedociągnięcia te nie powinny mieć miejsca, tym bardziej że ogród bywał często odwiedzany przez wycieczki szkolne.

Był to ogród prowincjonalny, brakowało w nim kilku podstawowych zwierząt, między innymi słońia. Usiłowano go na razie zastąpić, hodując trzy tysiące królików. Jednak w miarę jak rozwijał się nasz kraj – planowo uzupełniano braki. Wreszcie przyszła kolej i na słońia. Z okazji 22 Lipca

ogród otrzymał zawiadomienie, że przydział słonia został ostatecznie załatwiony. Pracownicy ogrodu, szczerze oddani sprawie, ucieszyli się. Tym większe było ich zdziwienie, kiedy dowiedzieli się, że dyrektor napisał do Warszawy memoriał, w którym zrzekał się przydziału i przedstawił plan uzyskania słonia sposobem gospodarczym.

„Ja i cała załoga – pisał – zdajemy sobie sprawę, że słoń jest wielkim ciężarem na barkach polskiego górnika i hutnika. Pragnąc obniżyć koszty własne, proponuję zastąpić słonia wymienionego w odnośnym piśmie – słoniem własnym. Możemy wykonać słonia z gumy, w odpowiedniej wielkości, napełnić go powietrzem i wstawić za ogrodzenie. Starannie pomalowany, nie będzie się odróżniał od prawdziwego, nawet przy bliższych oględzinach. Pamiętajmy, że słoń jest zwierzęciem ociężałym, nie wykonuje więc żadnych skoków, biegów i nie tarza się. Na ogrodzeniu umieścimy tabliczkę wyjaśniającą, że jest to słoń szczególnie ociężały. Pieniądze zaoszczędzone w ten sposób możemy obrócić na budowę nowego odrzutowca albo konserwację zabytków kościelnych. Proszę zwrócić uwagę, że zarówno inicjatywa, jak i opracowanie projektu jest moim skromnym wkładem we wspólną pracę i walkę. Pozostaje uniżenie” – i podpis.

Widocznie memoriał trafił do rąk bezdusznego urzędnika, który biurokratycznie traktował swoje obowiązki i nie wniknął w istotę sprawy, ale kierując się tylko wytycznymi w zakresie obniżki kosztów własnych – zaakceptował ten plan. Otrzymawszy odpowiedź zezwalającą, dyrektor ogrodu zoologicznego polecił wykonać ogromną powłokę z gumy, którą następnie wypełnić miano powietrzem.

Mieli dokonać tego dwaj woźni przez nadmuchiwanie powłoki z dwóch przeciwnych końców. Aby rzecz utrzymać w dyskreji, cała praca musiała być ukończona w ciągu nocy. Mieszkańcy miasta dowiedzieli się już, że ma przybyć prawdziwy słoń – i chcieli go zobaczyć. Poza tym dyrektor naglił, ponieważ spodziewał się premii, o ile jego pomysł zostanie uwieńczony powodzeniem.

Zamknęli się w szopie, w której urządzony był podręczny warsztat, i zaczęli nadmuchiwanie. Jednak po dwóch godzinach wysiłku stwierdzili, że szara powłoka tylko nieznacznie uniosła się nad podłogą, tworząc bulwiasty, spłaszczony kształt, w niczym jeszcze nie przypominający słonia. Noc postępowała, głosy ludzkie uciszyły się, jedynie z ogrodu dolatywało wołanie szakala. Zmęczeni, przerwali na chwilę pilnując, żeby powietrze już nadmuchane nie uciekło. Byli to starsi ludzie, nie przyzwyczajeni do takiej roboty.

- Jak tak dalej pójdzie, skończymy dopiero rano – rzekł jeden z nich. – Co ja powiem żonie, kiedy wrócę do domu? Nie uwierzy mi przecież, jeżeli jej powiem, że przez całą noc nadmuchiwałem słonia.

- Rzeczywiście – zgodził się drugi. - Słońce nadmuchuje się rzadko. Wszystko przez to, że nasz dyrektor jest lewak.

Po dalszej półgodzinie poczuli się zmęczeni. Kadłub słońca powiększył się, ale daleko było mu jeszcze do pełnych kształtów.

- Coraz ciężiej idzie – stwierdził pierwszy.

- W samej rzeczy – przytaknął drugi. – Jak po grudzie. Odpocznijmy trochę.

Kiedy odpoczywali, jeden z nich zauważył kurek gazowy wystający ze ściany. Pomyślał, czy nie dałoby się wypełnić słońca do reszty gazem, zamiast powietrzem. Powiedział o tym koledze.

Postanowili zrobić próbę. Załączyli kurek do słońca i ku ich uradowaniu już po krótkiej chwili na środku szopy stało zwierzę w całej wysokości. Było jak żywe. Zwalisty tułów, słupiaste nogi, wielkie uszy i nieodłączna trąba. Dyrektor, nie zmuszany już do liczenia się z żadnymi względami, a powodowany ambicją posiadania w swoim ogrodzie okazałego słońca, postarał się, żeby model był bardzo duży.

- Pierwszorzędnym - oświadczył ten, który wpadł na pomysł z gazem. – Możemy iść do domu.

Rankiem przyniesiono słońca do umyślnie urządzonego dlań wybiegu, w centralnym punkcie, koło klatki z małpami. Ustawiony na tle naturalnej skały wyglądał groźnie. Przed nim umieszczono tablicę: „Szczególnie ociężyły – w ogóle nie biega”.

Jednymi z pierwszych gości tego dnia byli uczniowie miejscowej szkoły, przyprowadzeni przez nauczyciela. Nauczyciel zamierzał przeprowadzić lekcję o słońcu w sposób poglądowy. Zatrzymał całą grupę przed słońcem i zaczął wykład:

- ...Słoń jest roślinożerny. Za pomocą trąby wyrывa młode drzewka i objada je z liści.

Uczniowie skupieni przed słońcem oglądali go pełni podziwu. Czekali, żeby słoń wyrwał jakieś drzewko, ale on tkwił za ogrodzeniem bez ruchu.

- ... Słoń pochodzi w prostej linii od zaginionych już dzisiaj mamutów. Nic więc dziwnego, że jest największym z żyjących zwierząt lądowych.

Pilniejsi uczniowie notowali.

- ...Tylko wieloryb jest cięższy od słońca, ale ten żyje w morzu. Możemy więc śmiało powiedzieć, że królem puszczy jest słoń.

Przez ogród powiał lekki wiatr.

- ...Waga dorosłego słońca waha się od czterech do sześciu tysięcy kilogramów.

Wtem słoń drgnął i unióś się w powietrze. Przez chwilę kołysał się tuż nad ziemią, ale podtrzymany wiatrem ruszył do góry i ukazał całą swą po-

teżną postać na tle błękitu. Jeszcze chwila i mknąc coraz wyżej, zwrócił się ku patrzącym z dołu czterema krążkami rozstawionych stóp, pękającym brzuchem i koniuszkami trąby. Potem, niesiony przez wiatr poziomo, pożeglował ponad ogrodzenie i zniknął wysoko za wierzchołkami drzew. Osłupiałe małpy patrzyły w niebo.

Słonia znaleziono w pobliskim ogrodzie botanicznym, gdzie spadając, nadział się na kaktus i pękł.

A uczniowie, którzy wtedy byli w ogrodzie zoologicznym, opuścili się w nauce i stali się chuliganami. Podobno piją wódkę i tłuką szyby. W słonie nie wierzą w ogóle.

SŁAWOMIR MROŻEK *ELEFANTEA*

(Itzulpena polonieratik: Marta Kopinska)

Parke zoologikoko zuzendaria goranahi hutsa suertatu zen. Animalia guztiak bere karreran gora egiteko urrats gisa tratatzen zituen. Ez zuen behar bezala zaintzen ezta nerabeen heziketan bere lantokiak zuen paper garrantzitsua ere. Jirafak lepo laburra zeukan, azkonarrak ez zeukan etzateko zulorik, marmotek noizbehinka bakarrik egiten zuten txistu, grinarik gabe eta desgogara. Akats hauek pentsaezinak ziren, izan ere, askotan izaten ziren eskoletako bisitaldiak.

Ez zen hiriko zooa eta oinarrizko animalia batzuk falta ziren han, elefantea, besteak beste. Momentuz, elefantea ordezkaten saiatzen ziren hiru mila untxi haziz, adibidez. Baina gure herria garatzen joan ahala, sistematikoki hutsune guztiak zuzentzen zituzten. Iritsi zen azkenean elefantearen txanda. Uztailaren 22an Herri Errepublikan Poloniarraren Berpizkundearen jai nazionala ospatzeko elefantearen esleipen-jakinazpena jaso zuen parkeak. Zoologikoko langileak, elefantearen kontu honen alde zeudela eta, asko poztu ziren. Horregatik, asko harritu zituen zuzendariak Varsoviara bidalitako idatzian esleipena ukatu eta lantokiak elefantea bere kabuz eskuratzeko plana aurkeztu zuela jakiteak.

“Ni eta lan-talde osoa –idatzi zuen– konturatzen gara elefante bat oso pisu handia dela poloniar meatzari eta burdinginaren sorbaldan. Geure kostuak murrizteko asmoz, agiri honetan aipatutako elefantea elefante propioaz ordezkatea proposatzen dut. Tamaina egokia izango duen gomazko elefantea ekoitz dezakegu, airez bete eta hesi atzean jarri. Ardura handiz margotuz gero, jendea ez da benetakoa ez dela konturatuko, ezta hurbiletik ere. Gogora dezagun elefantea oso animalia geldia eta astuna dela eta ez

duela salto eta korrika egiten, ezta iraulkatu ere. Elefante bereziki pisutsua eta motela dela azaltzen duen oharra jarriko dugu hesian. Honela aurreztu-tako dirua jet berri bat egiteko edota elizako monumenturen bat zaharberri-tzeko erabil dezakegu. Azpimarratu nahiko nuke, bai inizatiba hau, bai proiektua prestatzea guztion elkarlan eta borrokari egin nahiko niokeen ekarpen apala dela. Adeitasunez” – eta sinadura.

Dirudienez, idatzia funtzionario bihozgabe batengana iritsi zen, bere zeregin guztiak oso era burokratikoan egiten zituen horietako batengana, zeren eta gaiaren xehetasunik aztertu gabe, gastuak murriztearen ildoari jarraituz, plana onartu baitzuen. Baiezkoa jaso bezain laster, gomazko azal erraldoia ekoizteko agindu zuen parke zoologikoko zuzendariak. Gero, airez bete behar zen.

Bi zaindarik bete behar zuten zuzendariaren agindua, azala bi muturretik puztuz. Dena ahalik eta zuhurtzia handienaz egiteko, lana gau hartan bertan burutu behar zuten, herritarrek benetako elefantea parkera ekarriko zutela jakin baitzuten dagoeneko, eta ikusi nahi zuten. Horretaz gain, zuzendariak lana arin egiteko premia zeukan, bere ideia arrakastatsua izanez gero ordainsaria espero zuen eta.

Zaindariak lantegi moduan atondutako txabola txiki batean giltzape-tu ziren eta gomazko azala puzten hasi ziren. Hala ere, bi ordu geroxeago, ahalegin handia egin ondoren, azal gris hura zorutik pixkatxo bat baino ez zela altxatu ohartu ziren. Zapaldutako erraboila moduko itxura hartu zuen azalak orain, ez zuen oraindik elefante baten batere antzik. Gaua aurrera zihoan, kanpoko jendearen ahotsak isildu ziren, parketik zetorren txakal baten oihua baino ez zen entzuten. Neka-neka eginda, atsedenal-dia egin zuten, ordurako azalaren barruan zegoen aireak ihes ez egitea ziurtatuz. Adineko pertsonak ziren, ez zeuden ohituta horrelako lana egitera.

- Honela jarraitzen badugu, goizera arte egongo gara lanean. – Esan zuen batek. – Zer esango diot nire emazteari etxera itzultzean? Ez dit, ba, sinetsi-ko, gau osoan zehar elefante bat puzten egon naizela esaten badiot.

- Arrazoi duzu. – Ados zegoen bestea. – Elefanteak oso gutxitan puz-ten dira. Hau guztiau gure zuzendaria ezkertiar amorratua izateagatik gertatu da.

Ordu erdi bat gehiago pasa ondoren, oso nekatuta geratu ziren berriro. Elefantearen gorputza apur bat handitu zen, baina benetako animalia-aren itxura ederra izateko asko falta zitzaion oraindik.

- Gero eta zailago egiten zait. – Esan zuen batek.

- Zurekin bat nator. – Erantzun zion besteak. – Sugea limari horzka ari-tzearen parekoa da gure lan hau. Atsedean har dezagun.

Atsedean hartzen zeudela, paretan zegoen gas-txorrota bat ikusi zuen zaindariatako batek. Elefante osoa airez bete beharrean gasaz puzten jarraitzea bururatu zitzaion. Lankideari komentatu zion ideia.

Proba bat egitea erabaki zuten. Gas-txorrota elefanteari lotu zioten eta gutxi barru bi zaindarien poz-pezik ikusi zuten elefante erraldoia txabolaren erdian agertzen. Benetakoa ematen zuen. Gorputz-enbor indartsua, hankak lau zutabe sendo moduan, belarri erraldoiak eta, nola ez, bere ezinbesteko tronpa. Zuzendariak, funtzionarioaren baiezkua jaso zuenetik beste ezeri eta inori erreparatu gabe, bere parke zoologikoan egundoko elefantea edukitzeko handinahia asetzearen oso modelo handia lortu zuen.

- Primerakoa. – Esan zuen gasaren ideia izan zuen zaindaria. – Joan gaitezke etxera.

Goizean korta berezi batera eraman zuten elefantea. Parkearen erdi-erdian zegoen, tximinoen kaiolaren alboan. Itxura ikaragarria zuen elefanteak harri bizi naturalaren aurrean jarrita. Ohar bat ipini zuten: "Bereziki astuna eta geldoa – ez du batere korrika egiten".

Egun hartako lehenengo bisitariak herriko eskolako ikasleak izan ziren. Irakasleak eraman zituen elefanteari buruzko eskola bertan egiteko asmoz. Talde osoa elefantearen aurrean gelditu zuen eta hitz egiten hasi zen:

- ... elefantea animalia belarjalea da. Bere tronparen laguntzaz zuhaixkak errotik ateratzen ditu eta hostoak jaten ditu.

Ikasleak, hesiaren aurrean elkartuta, mirespen handiarekin elefanteari begira zeuden, zuhaixka bat errotik noiz aterako zain. Baina alferrik. Elefanteak hor jarraitzen zuen, zirkinik egin gabe.

- ... elefantea gaur egun galduta dauden mamuten ondorengo zuzena da. Ez da harrizkoa, beraz, munduko lur lehorreko animaliarik handiena izatea.

Ikasle saiatuenek koadernoetan oharrak idazten zituzten.

- ... balea da elefantea baino astunagoa den bakarra, baina itsasoan bizi da. Horregatik, dudarik gabe esan dezakegu basoko erregea elefantea dela.

Haize leuna nabaritu zen parkean.

- ... elefante heldu baten pisua lau eta sei mila kilogramo artekoa da.

Halako batean, elefanteak dar-dar egin zuen eta airean altxatu zen. Une batez lurretik oso hurbil dilin-dalan geratu zen, baina jarraian haizeak gora eta gora eraman zuen eta laster elefantearen gorputz erraldoi osoa zeru urdinean ikus zitekeen. Oraindik gorako bidean, lurretik begira zeudenei bere oin-zola borobilak, tripa potoloa eta tronparen muturtxoak erakusten zien. Gero, haize horizontalak jota parkeko hesiaren gainetik eraman zuen eta goi-goian, zuhaitzen adaburuaren atzean desagertu zen. Tximinoak zur eta lur geratu ziren zerura begira.

Elefantea hurbil zegoen lorategi botanikoan aurkitu zuten. Jaisten zihoala kaktus arantza batek ziztatu eta lehertu egin zen.

Egun hartan parke zoologikoa bisitatu zuten ikasleek ikasketei gero eta jaramon gutxiago egin zieten eta ikasle txarrak eta gaiztoak bihurtu ziren. Vodka edaten eta leihoetako kristalak apurtzen ematen omen dute denbora. Ez dute elefantetan batere sinesten.